



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN  
KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA  
KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEAREN  
TXOSTENA.  
3-2023 ESPEDIENTEA**

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 30a

**COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE  
LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO  
INFORME DE LA COMISIÓN DE CONTROL Y  
TRANSPARENCIA.  
EXPEDIENTE 3-2023**

Vitoria-Gasteiz, 30 de enero de 2025

**1. Kasuaren inguruabarrak**

Hedabide batzuetan 2023ko martxoaren 8tik 10era bitartean agertutako berrien bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzorde honek (EAEPKGB) Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoaren jarduketa baten berri izan zuen. Jarduketa horren ondorioz, berrieta jasotakoaren arabera, adingabeko bat lesionatuta atera zen.

- **2023/03/21.** Vitoria-Gasteizko Udaleko alkate-udalburuak EAEPKGBko buruari bidalitako ofizio batean proposatu zion, Batzordeak egoki joz gero, Udaltzaingoaren 2023ko martxoaren 6ko jarduketa aztertzeko, A/23/0717-0 atestatuan jasotakoa, eta, hala bazegokion, gomendioak emateko edo egokitzat jotzen zituen neurriak proposatzeko.

**1. Circunstancias del caso**

Por noticias aparecidas en diversos medios de comunicación entre los días 8 y 10 de marzo de 2023, esta Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco (CCTPPV) tuvo conocimiento de una actuación de la Policía Local de Vitoria-Gasteiz en la que, según se afirmaba, había resultado lesionado un menor de edad.

- **21/03/2023.** El Ilmo. Sr. Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz dirige oficio por el que se pone en conocimiento de la Presidencia de la CCTPPV la propuesta de que, si esta Comisión lo estima conveniente, proceda al estudio de la actuación llevada a cabo por la Policía Local el día 6 de marzo de 2023 que se refleja en el atestado A/23/0717-0 que se acompaña y, en su caso, formule las recomendaciones o proponga las medidas que considere oportunas.

**2. Jarduera hauek egin dira**

- **2023/03/29.** Ofizioa martxoaren 22an jaso ondoren, EAEPKGBak 2023ko martxoaren 29ko bileran erabaki zuen enkargua onartzea eta jakinarazitako intzidentearen Vitoria-Gasteizko udaltzainek izandako portaera edo jokabidea aztertzea. Bilera berean erabaki zen Udaltzaingo horretako Burutzari eskatzea Batzordeari bidaltzeko etorkizunean erreferentziako atestatuarekin lotuta izan litezkeen zabaltze-eginbide guztien kopia. Horrez gain, Batzordeak esku hartu zuten informatzeko ea Udaltzaingoak jendea esparru publikoetan atxilotzeko praktika onen protokolo edo eskuliburu bat zeukan eta, hala bazen, Batzordeari horren ale bat bidaltzeko. Intzidente horretan esku hartu zuten agenteen (4531 eta 4403 identifikazio-zenbakia dutenak) jarduketaren ondorioz eginbide penalak ireki ziren ere galdezu zen eta, hala bazen, eginbide horiek zein epaitegi instruitzen ari zen adierazteko ere eskuatzen.

**2. Actuaciones realizadas**

- **29/03/2023.** Efectuado el siguiente 22 de marzo el pertinente acuse de recibo, la CCTPPV en la reunión de 29 de marzo de 2023 acuerda aceptar el encargo y proceder al estudio sobre la conducta o práctica en el seno de la Policía Local de Vitoria-Gasteiz desarrollada en el incidente comunicado. En la misma sesión, se acuerda interesar de la Jefatura de dicha Policía Local que se remita a la Comisión una copia de todas las diligencias ampliatorias que eventualmente se produzcan en el futuro en el atestado de referencia. Se pide también que se informe a la Comisión sobre si la Policía Local dispone de un protocolo o manual de buenas prácticas para proceder en la detención de personas en espacios públicos y, en caso afirmativo, que se nos remita un ejemplar del mismo. Se pregunta así mismo si la actuación de los Agentes intervenientes en el incidente, con número de identificación 4531 y 4403, ha dado lugar a la



- **2023/04/05.** Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoko komisario buruak Batzorde honi hauen berri eman zien: a) 2023ko martxoaren 21ean bidalitako dokumentazioan A/23/0717-0 atestatuko testu osoa jasota dago; b) atestatu horretan A/23/0717-1 eta A/23/0717-2 zabaltze-eginbideak sortu dira eta horien kopia osoa bidaltzen da; c) Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoak ez dauka pertsonak esparru publikoetan atxilotzeko protokolo propiorik eta langileei Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 3/2009 Instrukzioa helarazi zaie, atxiloketa egiteko modua kontrolatzeari buruzkoa, eta horren kopia ere bidaltzen da; d) Ikertutako gertakariarekin lotuta, Vitoria-Gasteizko 4 zk.ko Instrukzio Epaitegiak 491/2023 aurretiazko eginbideen prozedura ireki du.

- **2023/04/20.** Batzordeburuak Vitoria-Gasteizko 4 zk.ko Instrukzio Epaitegiko magistratu titulares jakinarazi dio Batzordeari eskatu zaiola 491/2023 aurretiazko eginbideetan jasotako Udaltzaingoaren jarduketari buruzko txosten bat egiteko, eta adierazi dio Batzordeari eskatu zaión azterketa horren helburua ez dela diziplinazko erantzukizuník edo erantzukizun penalik dagoen aztertzea edo argitzea.

- **2023/06/12.** Batzordeburuak Udaltzaingoko Burutzari eskatu zion azken komunikazioa bidali zuenetik une horretara arte izandako informazio berri guztia bidaltzeko, aipatzen ari garen gaiarekin lotuta Vitoria-Gasteizko 4 zk.ko Instrukzio Epaitegian jarraitzen ari zen 491/2023 aurretiazko eginbideen prozedura penalean zein arlo administratiboan eta diziplina arloan aurrera eramandako jarduketei buruzkoa. Burutza horrek idatziz ez zuen erantzuník bidali, baina ahoz jakinarazi zuen berrik ez zegoela.

- **2024/06/28.** EAEPKGBak Alkatetzara ekainaren 24an hartutako erabakia bidali zuen. Horren bidez, Udaltzaingoko Burutzari eskatzen zion, Udalak azken txostena bidali zuenetik (23/04/05) une horretara arte, hauei buruz eskura zeukan informazio guztia bidaltzeo: 491/2023 aurretiazko eginbideen (Vitoria-Gasteizko 4 zk.ko Instrukzio

incoación de diligencias penales, pidiendo, en este caso, que se indique el juzgado que se encuentre instruyéndolas.

- **05/04/2023.** El Sr. Comisario Jefe de la Policía Local de Vitoria-Gasteiz informa a la Comisión que: a) la documentación remitida el día 21 de marzo de 2023 se corresponde con el texto íntegro del atestado A/23/0717-0; b) Se han producido al atestado indicado las diligencias ampliatorias A/23/0717-1 y A/230717-2 cuya copia íntegra se adjunta; c) la Policía Local de Vitoria-Gasteiz no dispone de ningún protocolo propio para proceder a la detención de personas en espacios públicos, habiéndose facilitado a la plantilla la Instrucción 3/2009 de la Fiscalía General del Estado sobre control de la forma en que ha de practicarse la detención, cuya copia se anexa; d) En relación con los hechos investigados se ha incoado el procedimiento de Diligencias Previas 491/2023 por el Juzgado de instrucción nº 4 de los de Vitoria-Gasteiz.

- **20/04/2023.** Por la Presidencia de la Comisión se pone en conocimiento de la Magistrada titular del Juzgado de Instrucción nº 4 de los de Vitoria-Gasteiz la encomienda para la realización de informe en relación con la actuación de la Policía Local que se refleja en las Diligencias Previas 491/2023; con indicación de que el estudio encomendado a la Comisión no tiene por objeto la investigación ni la depuración de responsabilidades disciplinarias ni penales.

- **12/06/2023.** Por la Presidencia de la Comisión se interesa de la Jefatura de Policía Local el traslado de la información que esté a su disposición sobre las actuaciones llevadas a cabo en el asunto de referencia desde la última comunicación remitida, tanto en el procedimiento penal DP nº 491/2023, seguido ante el Juzgado de Instrucción nº 4 de los de Vitoria-Gasteiz, como en el ámbito administrativo y disciplinario. No hubo respuesta escrita, pero verbalmente nos comunicaron que no había novedades.

- **28/06/2024.** La CCTPPV remite a la Alcaldía el acuerdo adoptado el anterior día 24 de junio, por el que se interesa de la Jefatura de la Policía Local la remisión de la información disponible sobre la situación procesal de las Diligencias Previas 491/2023 (Juzgado de Instrucción nº 4 de los de Vitoria-Gasteiz), así como sobre el procedimiento



Epaitegia) egoera prozesala, aztergai daukagun jarduketa polizialarekin lotuta irekitako procedura administratiboak edo kasuarekin lotutako beste edozein jarduketa administrativo.

administrativo eventualmente incoado en relación con la actuación policial objeto de estudio o sobre cualquier otra actuación administrativa relacionada con este caso, adoptada desde el último informe remitido por el Ayuntamiento (05/04/23).

- **2024/06/28.** Alkatetzaren komunikazio bat jaso zen, aztergai ditugun gertakariekin lotuta egun horretara arte zeuden dokumentu guztiekin. Besteak beste, inplikatutako agenteei diziplina-espedienteak irekitzeko – eta aldi berean eteteko-ebazpenak (23/06/09koak) bidali zizkiguten. Halaber, EAEPKGB honi adierazi zioten epaitegietara bidalitako idatzien erantzunik ez dutela jaso eta, hortaz, ez zekitela zein egoeratan zegoen procedura judicialean tramitazioa. Adingabeen Epaitegira zein 4 zk.ko Instrukzio Epaitegira bidalitako informazio-eskaeren kopiak ere aurkeztu zituzten.

- **28/06/2024.** Se recibe comunicación de la Alcaldía, con los documentos existentes hasta la fecha en relación a los hechos que nos ocupan. Nos envían, entre otras, las resoluciones, de 09/06/23, de incoación -y simultánea paralización- de sendos expedientes disciplinarios a los agentes implicados. Indican así mismo a esta CCTPPV que no han recibido respuesta de los escritos enviados a los juzgados, por lo que desconocen el estado de la tramitación de los procedimientos judiciales. Aportan copias de las peticiones de información remitidas tanto al Juzgado de Menores como al Juzgado de Instrucción nº 4.

- **2024/11/15.** Batzordeak Udalari 24-11-05eko erabakia jakinarazi zion; horren bidez, berriz ere eskatzen baitzen kasuari buruz izandako dokumentazio edo informazio berri guzia bidaltzeo. Zehazki, hauxe esku genuen: Vitoria-Gasteizko Udaleko Segurtasun Sailaren esku zeuden AE 491/2023 aurretiazko eginbideetatik eratorritako jarduketa judicial guztiak kopiatu, hala bazegokion, prozesu penalaren amaiera eragin zuen ebazapen judicialeko. Horrez gain, Batzorde honi inplikatutako bi agenteei irekitako diziplina-prozeduren egoerari buruz informatzeko ere esku genuen.

- **15/11/2024.** La Comisión comunica al Ayuntamiento el Acuerdo de 5-11-24, en el que se vuelve a solicitar la nueva documentación o información que hayan podido obtener sobre el caso. Pedimos específicamente copia de todas las actuaciones judiciales dimanantes de las DP nº 491/2023 que obren a disposición del Departamento de Seguridad, incluida, en su caso, la resolución judicial que haya dado fin al proceso penal. Así mismo, solicitamos que se informe a esta Comisión sobre el estado de situación de los procedimientos disciplinarios, incoados a los dos agentes implicados.

- **2024/11/19.** Udaleko arduradunaren mezu bat jaso genuen eta, horrekin batera, 24-06-28an bidalitako dokumentu berbera. Horretan azaldu zuen ez zeukatela expedienteari buruzko informazio berririk eta ez zutela epaitegitik komunikaziorik jaso, nahiz eta – hala dio- azaroaren 12an epaitegiari berriz ere bidalizioten epai-eskaera, eta dokumentu hori ere erantsita bidalizuen.

- **19/11/2024.** Se recibe un mensaje del responsable municipal, al que anexa el que ya envió el 28-06-24. Explica que no disponen de nueva información sobre el expediente y que no han recibido ninguna comunicación del Juzgado, a pesar de que -dice- con fecha 12 de noviembre reiteraron al juzgado la petición de sentencia, documento que adjunta.

- **2024/11/20.** Aurreko mezuari erantzuteko, Batzordeak Udalari esku zion epaitegitik erantzuna jasotakoan, hori guri jakinarazteko.

- **20/11/2024.** En respuesta al mensaje anterior, la Comisión solicita al Ayuntamiento que nos comunique la respuesta que obtenga del Juzgado.



- **2024/12/10.** Beste bide batetik informazioa jaso ezinik, EAEPKGBak 4 zk.ko Instrukzio Epaitegira idatzi bat bidali zuen argitzeko jarduketa penalak amaituta zeuden ala ez, eta ondorioz, hala bazegokion, Udalak bere garaian hasitako diziplinazko prozeduraren etendura altxatzeko.

- **2025/01/27.** EAEPKGBak 4 zk.ko Instrukzio Epaitegiaren ofizio bat jaso zuen eta horretan jakinarazten zen Batzordeari ezin ziotela eskatutako informazioa eman prozedura ebaZen irmoz amaitu gabe zegoelako.

- **10/12/2024.** Ante la imposibilidad de conseguir información por otros medios, la CCTPPV dirige un escrito al Juzgado de Instrucción nº 4 para tratar de saber si las actuaciones penales han finalizado y, en consecuencia, si procede alzar la suspensión del procedimiento disciplinario incoado en su día por el Ayuntamiento.

- **27/01/2025.** Esta CCTPPV recibe un oficio del Juzgado de Instrucción nº 4 en el que se nos comunica que no se accede a facilitar la información solicitada, *"dado que el procedimiento no ha concluido por resolución firme"*.

### **3. Txosten honek aztertzen dituen kontuak**

Txosten honek aztertzen duen gertakariak betetzen ditu Batzorde hau aktibatzeko baldintzak – Euskal Autonomía Erkidegoko Poliziaren Legearen Testu bateginaren 17.2 artikulua. Alde batetik, adingabe batek esku hartze polizial batean lesioak jasan zituelako berria zabaldzu zuten hedabide batzuek eta argazkietako batean larrialdietako txosten medikoaren edukia ere ikusi ahal izan zen. Alde horretatik, EAEPLeen 17.2.b) artikuluan aurreikusitako baldintza betetzen du; izan ere, horren arabera, Batzordeak ofizioz esku hartu behar du jarduketa polizial batean norbait larriki lesionatuta suertatzen bada.

Beste alde batetik, Vitoria-Gasteizko Udalak berak EAEPKGB honetara jo zuen eskatzen, egoki iritziz gero, Udaltzaingoaren 2023ko martxoaren 6ko jarduketa aztertzeko, jokabide polizial hori EAEPLeen 17.2.b) artikuluko baldintzak bete zitzakeelako: *"baldin eta eskubideak urratzeagatik kexaren bat jaso bada, edo bestelako kexaren bat, eta horrek benetako kezka sortzen badu, herritarren konfiantza kaltetu dezakeelako"*.

Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoak instruitutako A/23/0717 atestatuaren arabera, martxoaren 6ko esku hartze polizialaren helburua zen patinete elektrikoa gidatzen zuen pertsona bat gelditzea eta identifikatzea, oinezkoentzako eremuetatik eta espaloietatik zirkulatzen zebilelako. Agenteek gidariari gelditzeko agindu zioten behin baino gehiagotan, baina gidariak ez zuen obeditu eta azkenean, 900 metroz atzetik jarraitu ondoren, geldiaraztea lortu zuten. Jarduketa poliziala amaitutakoan, gidariak -adingabea zena- lesioak zituen.

### **3. Cuestiones objeto del presente Informe.**

El incidente que es objeto de estudio en el presente informe responde a los dos supuestos que -según el artículo 17.2 del Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco (LPPV)- motivan la activación de esta Comisión. Por una parte, diversos medios de comunicación difundieron la noticia de que un menor había sufrido lesiones en el curso de una intervención policial, llegando incluso a mostrarse el contenido del correspondiente parte médico de urgencias en una de las fotografías. Esta circunstancia completa la previsión del art. 17.2.b) LPPV, que obliga a la Comisión a intervenir de oficio cuando se produzcan lesiones graves en el contexto de una actuación policial.

Por otra parte, el propio Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se dirigió a esta CCTPPV para solicitar que, si lo estimaba conveniente, procediese al estudio de la actuación llevada a cabo por la Policía Local el día 6 de marzo de 2023, puesto que podía enmarcarse entre las conductas policiales mencionadas en el art. 17.2.b) LPPV: *"sobre la(s) que se hayan recibido quejas sobre vulneración de derechos u otras en las que exista seria preocupación sobre el impacto en la confianza de la ciudadanía"*.

Según se recoge en el atestado A/23/0717 instruido por la Policía Local de Vitoria, la intervención policial acaecida el citado 6 de marzo tenía como objeto proceder a la interceptación e identificación de una persona que conducía un patinete eléctrico, que circulaba por zonas peatonales y aceras. Los agentes efectuaron varias órdenes de alto al conductor, pero éste no obedeció las mismas, hasta que lograron interceptarlo, tras una persecución de aproximadamente 900 metros. Al finalizar la



EAEPKGBak uste du lesio horiek, hedabideek jakinarazi zitzuzenak, justifikatzen dutela esku hartzetako polizial hori aztertzea; horrek, Udaltzaingoaren arduradunek beraiek ulertu zuten moduan, herritarrek zerbitzu polizialaren funtzionamenduan daukaten konfianza kalte dezakeelako.

Horrez gain, kontuan hartu behar da adingabearen gurasoetako batek salaketa penal bat aurkeztu zuela jazarpenean implikatutako bi agenteen aurka eta, era berean, Udaltzaingoak Adingabeen Fiskaltzari eman zion gertatutakoaren berri.

Ikerketa penal bat abian zegoenez, EAEPKGBak erabaki zuen ikerketa penal horretan eraginik izango ez zuten alderdiak baino ez aztertzea eta erantzukizun penal edo diziplinazkoak eragin litzaketan jokabide individualak ez aztertzea. Agintaritza judicial eskudunari (EAEP 19.4 art.) horren berri eman zitzaison.

EAEP 17.1 artikuluak ezartzen duenaren arabera, gure helburu nagusia da herritarrek jarduketa polizialen gainezko kontroletan duten konfianza indartzea. Kasu honetan, horrek esan nahiko luke egiaztatza Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoak mekanismorik daukan bere agenteek izan ditzaketen jarduketa okerrak prebenitzeko, detektatzeko eta, hala badagokio, horien aurrean eraginkortasunez erreakzionatzeko.

Horri dagokionez, Batzorde honek uste du prebentzio-tresnetan hobekuntza-aukerak proposatzeko zein Administrazio eskudunaren erantzuna baloratu ahal izateko, behar-beharrezkoia izango litzatekeela bide judizialean – edo horren ordez, bide diziplinarioan- jokabidearen izaera zehaztea. Horrekin lotuta, agenteen jokabidea legezkoa (eginbeharra bete beharrak justifikatuta) izan liteke ala ez-legezkoa eta, horrela balitz, dolozkoa ala zuhurtziagabekeriazkoa. Horren arabera arau-hauste motak desberdinak izango lirateke, diziplina-espedientea hasteko 23/06/09ko Ebazpenean azaltzen den bezala.

Ia une honetara arte, gertatu zenetik ia bi urte geroago, ezin izan dugu jakin zein puntutan zegoen irekitako kausa judicialaren instrukzioa. Aurreko egunetan, epaitegiak bidalitako ofizio baten bidez, jakin dugu horren tramatazioa ez dela amaitu. Horregatik, Batzorde honek erabaki du lehenengo “txosten partzial” bat egitea aztertzen ari den kasuko alderdi batzuei buruz, implikatutako agenteen jokabidearen kalifikazio juridikoarekiko independenteak diren alderdiei buruz, hain zuzen.

actuación policial, el conductor -que resultó ser menor de edad- presentaba lesiones.

La CCTPV considera que este resultado lesivo, que fue difundido por los medios de comunicación, justifica el análisis de la intervención policial realizada, puesto que - como los propios responsables de la Policía Local entendieron- puede afectar negativamente a la confianza de la ciudadanía en el funcionamiento del servicio policial.

Ha de tenerse en cuenta, además, que uno de los progenitores del menor formuló una denuncia penal frente a los dos agentes implicados en la persecución y, a su vez, la Policía Local dio traslado de los hechos a la Fiscalía de Menores.

Ante la existencia de una investigación penal en curso, la CCTPV decidió centrar su análisis en aspectos que no interfieren en aquélla y no examinar las conductas individuales que pudieran dar lugar a responsabilidades penales o disciplinarias, lo que se comunicó a la autoridad judicial competente (art. 19.4 LPPV).

Como establece el art. 17.1 LPPV, nuestro objetivo se centra en reforzar la confianza de la ciudadanía en los controles sobre la actuación policial. En este caso, ello se concretaría en comprobar si la Policía Local de Vitoria-Gasteiz tiene mecanismos para prevenir, detectar y, en su caso, reaccionar eficazmente frente a posibles actuaciones incorrectas de sus agentes.

Al respecto, esta Comisión considera que, tanto para proponer posibles mejoras en las herramientas de prevención, como para poder valorar la respuesta de la Administración competente, sería necesario que en vía judicial - o subsidiariamente, disciplinaria- se determinase la naturaleza de la conducta realizada. En este sentido, el comportamiento de los agentes podría ser lícito (justificado por el cumplimiento del deber) o ilícito y, en tal caso, doloso o imprudente, lo que daría lugar a diferentes tipos de infracciones, como se expone en la Resolución de 09/06/23, de incoación del expediente disciplinario.

Hasta este momento, casi dos años después de los hechos, no habíamos podido conocer en qué punto se hallaba la instrucción de la causa judicial abierta. En los pasados días, mediante oficio remitido por el Juzgado, hemos sabido que la tramitación no ha finalizado. Por ese motivo, esta Comisión ha decidido realizar un primer “Informe parcial” sobre algunos de los aspectos



Ustezko jarduketa irregulararrak detektatzeko neurriei dagokienez, egokia iruditu zaigu begiratzea nola egin den atestatua, hor lehenengo aldiz jasotzen baitira gertatutakoak.

Era berean, diziplina-espedientea hasteko moduari buruzko lehenengo hurbilpen bat egingo dugu eta horretarako zehatz-mehatz aztertuko da ea burutu beharreko jarduketa guztiak burutu diren, gerora eta beharrezkoa izanez gero, zehapen prozedura eraginkortasunez garatu ahal izateko.

Dena den, gerora jarduketa administratibo gehiago egiten badira, EAEPKGBak aztertu ahal izango ditu.

del caso analizado y que son independientes de la calificación jurídica de la conducta de los agentes implicados.

Respecto a las medidas para detectar posibles actuaciones irregulares, hemos considerado oportuno observar cómo se ha elaborado el atestado en el que se recogen por primera vez los hechos acaecidos.

Así mismo, realizaremos una primera aproximación al modo en que se inicia el expediente disciplinario, estudiando específicamente si se han llevado a cabo todas las actuaciones que, en un momento posterior y si fuese necesario, permitan desarrollar eficazmente el procedimiento sancionador.

En todo caso, las eventuales actuaciones administrativas que se produzcan podrán ser objeto de un futuro control por la CCTPPV.

#### **4. Zerbitzu polizialaren funtzionamenduari buruzko gogoetak**

##### **4.1 Izan zitezkeen jarduketa polizial irregulararrak detektatzeko neurriei buruz**

Atestatuan operazio polizial batean esku hartu duten agenteen deklarazioa jasotzen da eta horixe izaten da arduradun polizialentzat agente horien jarduketei buruzko informazio-iturri nagusia. Hori dela eta, atestatua egiteko moduak eragin dezake izan litezkeen jarduketa irregulararrak errazago detektatzea edo, alderantziz, detekzio hori oztopatzea.

Horri dagokionez, argi dago polizien implikazio subjektiboa handiagoa den kasuetan (atentatu-delituak edo agintaritzako agenteen jarkitza edo, bereziki, indarra erabili den kasuak) eska litekeela implikatutako funtzionario polizialek bakoitzak bere aldetik deklara dezatela. Bi bertsioak alderatzeko aukera badago, izan zitezkeen irregularatasunak edo jokabide okerrak detektatzeko aukera handiagoa izango da eta, hala bada, zuzendu ahal izango lirateke.

Aztertutako kasuan, atestatuaren 7tik 9ra bitarteko folioetan jasota dagoenaren arabera, gertakarien protagonista izan ziren udaltzainek batera deklaratu zuten eta deklarazio bakarra egin zuten.

#### **4. Consideraciones sobre el funcionamiento del servicio policial**

##### **4.1. Sobre las medidas para detectar posibles actuaciones policiales irregulares**

La declaración que los agentes intervenientes en una operación policial realizan en el atestado constituye la fuente primaria por la que los responsables policiales tienen conocimiento de las actuaciones de dichos agentes. Por ello, el modo en que se elabora el atestado puede favorecer o, por el contrario, obstaculizar la detección de posibles actuaciones irregulares.

En este sentido, es evidente que en los casos en los que la implicación subjetiva de los policías resulte más intensa (delitos de atentado o resistencia a los propios agentes de la autoridad o, en especial, supuestos en los que se ha utilizado la fuerza) parece exigible que los funcionarios policiales implicados declaren por separado. El contraste entre las diferentes versiones amplía las posibilidades de detectar eventuales irregularidades o conductas incorrectas y, en su caso, permitiría corregirlas. En el caso analizado, según consta en los folios 7 a 9 del atestado, los policías locales que protagonizaron los hechos realizaron una única declaración conjunta.



#### 4.2 Diziplina-espedientearen hasiera.

- **4.2.1** Informazio-eginbideak edo, hala badagokio, diziplina-espediente bat irekitzea eraginkorragoa izango da ikertzen diren gertakariak denboran hurbilago badaude.

Esku artean daukagun kasuan, agenteen deklarazioari dagokionez aurreko atalean aipatu dugun gabezia gorabehera, atestatu polizial oso bat egin zen eta horretan jasota daude, besteak beste, lekukoen deklarazioak, inguruko dendetako grabazioak, ibilgailuak egindako ibilbidearen begizko ikuskapena, etab. Egia da atestatu horren lehenengo helburua Adingabeen Epaitegia zela, baina badirudi bildutako informazio hori 4 zk.ko Instrukcio Epaitegira ere bidali zela, agenteen aurkako eginbide penalak ireki zirenean. Era berean, Udaleko Herritarren Segurtasuneko zinegotzi delegatuaren 23-06-09ko ebazpena, agenteei diziplina-espedientea irekitzekoa, horretan oinarrituta dago.

Modu positiboan baloratu behar da hasierako ikerketa hain zabala izatea, baina onartu ere egin behar da horren helburu nagusia adingabeak izandako jokabidea zehatz-mehatz aztertzea zela eta ez adingabe horri jarraitu zioten agenteen jokabidea. Kontua da expedientea irekitzea erabakitzan zen ebazpenean bertan "diziplina prozedura etetea" ere erabakitzan zela eginbide penalak ebatzi arte. Erabaki hori hartu zen gertatutakoa ikertzeko aukera guztiak agortu gabe edo, gutxienez, beste ikerketa-aukera posiblerik ez zegoela egiaztatu gabe. Eta hori hala balitz, hau da, alderdi batzuk argitzeko edo ikerketa batzuk egiteko geratuz gero, zaila izango da gero horiek behar bezala argitza edo ikertza, prozesu judizialean amaitu arte egin gabe uzten badira.

#### 4.2. Inicio del expediente disciplinario.

- **4.2.1.** La apertura de unas diligencias informativas o, en su caso, un expediente disciplinario resulta más eficaz cuanto más próximo se encuentre en el tiempo a los hechos que se investigan.

En el caso que nos ocupa, y a pesar del defecto señalado en el apartado anterior respecto a la declaración de los agentes, se realizó un completo atestado policial, en el que se recogen declaraciones de testigos, se recaban grabaciones de los comercios de la zona, se hace una inspección ocular del recorrido efectuado por el vehículo, etc. Es cierto que el destino inicial de dicho atestado es el Juzgado de Menores, pero parece que la información recopilada se hace llegar también al Juzgado de Instrucción nº 4 cuando se abren las diligencias penales contra los agentes y, así mismo, sirve de base para la resolución de la Concejala-Delegada de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de 09-06-23, por la que se incoa el expediente disciplinario a los agentes.

Hay que valorar positivamente la amplitud de esa investigación inicial, pero debe reconocerse también que su objetivo principal es conocer con precisión la conducta llevada a cabo por el menor y no la de los agentes que le persiguen. La cuestión es que, en la citada resolución por la que se acuerda la apertura del expediente, se decide también "paralizar el procedimiento disciplinario" hasta que se resuelvan las diligencias penales. Esta decisión se adopta sin haber agotado todas las posibilidades de investigación sobre lo acaecido o, al menos, sin asegurarse de que no hubiese otras indagaciones que realizar. Y si eso fuese así, es decir, si quedasen aspectos por aclarar o averiguaciones pendientes, difícilmente podrían llevarse a cabo con éxito si se posponen hasta que haya finalizado el proceso judicial.

- **4.2.2** Ildo beretik, Udalak prozedura judicialaren garapenari buruzko informazioa zenbait aldiz eskatu arren, ez duela lortu jakinarazi digu, baina geure buruari galdetzen diogu ea ez zegoen eskatzerik jarduketa penalei modu zuzenagoan jarraitzeko aukera emango zuten neurriak hartzeko. Esku artean dugun kasuan bi polizia agente ikertuak izaten ari dira ustezko delituengatik. Horrelakoetan, zerbitzu polizialaren ardura daukan Administrazioak prozesuan agertzeko modua aurkitu beharko luke, esaterako, arduradun zibil subsidiario moduan edo hausnartu beharko litzatekeen beste modu batean.

- **4.2.2.** En este mismo sentido, y aunque el Ayuntamiento nos ha hecho saber que ha solicitado en varias ocasiones información sobre el desarrollo del procedimiento judicial, sin obtenerla, cabe preguntarse si no sería exigible la adopción de medidas que permitan un seguimiento más directo de las actuaciones penales. En casos como el que nos ocupa, donde dos agentes de policía son investigados por posibles delitos, la Administración responsable del servicio policial debería encontrar el modo de comparecer en el proceso, por ejemplo, como



eventual responsable civil subsidiario o de otros modos sobre los que convendría reflexionar.

## **5. Prebentziozko neurrien proposamena**

Aurreko ataletan aztertutako alderdiak eta egindako balorazioak kontuan hartuta, Batzorde honek – lehenengo txosten partzial honetan-jarduketa polizialaren gainekeo kontrolak hobetzeko, ildo hauek proposatu nahi ditu:

1. Esku hartzeko polizial batean indarra erabili den kasuetan, atestatuak egiteko protokoloak ezartzea. Aurreko gomendio hori ustezen delitu hauekin lotutako atxiloketen kasuan ere aplikatu behar da: atentatua edo agintaritzako agenteei desobediteza edo jarkitzea; funtzionario polizialak horrelako jarduketean maila personalean inplikatuta egoten dira eta. Horrelako kasuetan egitateak deskribatzeari objektibitatea indartzeko, berariazko neurriak hartu behar dira (adibidez, agente esku hartzale guztiak deklaratzea baina bakoitzak bere aldetik).

Gomendio hori 1/2022 espedientearen ere eman zen eta EAEPKGBren 2021-2022ko Memoria ere jaso zen. Berretsi behar dugu horrek indarrean jarraitzen duela, kidego polizial guztiei horren edukiaren berri eman dakiela sustatzeko.

2. Kode deontologiko polizialaren aurkako jarduketa izan delako zantzuak daudenean, barruko ikerketa (aurretiazko informazioa edo diziiplina-espeditentea) berehala eta ofiziora egitea, eta agintaritza judizialari ikerketa penala eragin dezaketen egintzen berri ematea. Egintza berberen gainean jarduketa judizialak eta diziplinazkoak daudenean, horiek aurrera eraman beharko dira ikertzeko arrazoizko posibilitate guztiak agortu arte, baina ez da expediente administrativoaren gaineko ebazpenik emango, harik eta procedura judiziala, epai edo beste ebazpen irmo baten bidez, amaitzen den arte.

3. Prozesu-egintzak erabiltzea aztertzea, Administrazioak ekintza judizialei jarraipena egin ahal izan diezainen, baldin eta diziiplina-espeditentearen ebazpena ekintza judicial horien ondorioen araberakoa bada. Arduradun polizialen betebeharra da zerbitzuaren funtzionamendu ona bermatzea eta, horri dagokionez, eskatu ahal zaien diligentziak barne hartzen du aztertzea zer lege

## **5. Propuesta de medidas preventivas**

A la vista de las cuestiones analizadas y de las valoraciones realizadas en los apartados anteriores, esta Comisión propone -en este primer Informe Parcial- las siguientes líneas de mejora en los controles de la actividad policial:

1. Establecer protocolos para la elaboración de los atestados para aquellos casos en los que se haya recurrido al uso de la fuerza en el desarrollo de la intervención policial. Esta recomendación debe ampliarse a todas las detenciones por presuntos delitos de atentado, resistencia o desobediencia a los agentes de la autoridad, puesto que en este tipo de actuaciones los funcionarios policiales se ven implicados personalmente. Con la finalidad de reforzar la objetividad en la descripción de los hechos en ese tipo de casos, han de adoptarse medidas específicas (por ejemplo, la declaración por separado de la totalidad de agentes intervenientes).

Esta recomendación se formuló ya en el Expediente 1/2022 y se recogió en la Memoria de la CCTPPV 2021-2022. Resulta oportuno ratificar su vigencia para contribuir a la difusión de su contenido a todos los cuerpos policiales.

2. Promover de oficio y de modo inmediato una investigación interna (información previa o expediente disciplinario) cuando existan indicios de una actuación contraria al código deontológico policial, dando traslado a la autoridad judicial de los hechos susceptibles de investigación penal. En los supuestos de concurrencia de actuaciones judiciales y disciplinarias sobre los mismos hechos, habrá de completarse éstas hasta agotar todas las posibilidades razonables de investigación, si bien se pospondrá la resolución del expediente administrativo hasta que finalice, por sentencia u otra resolución firme, el procedimiento judicial.

3. Estudiar el empleo de acciones procesales dirigidas a posibilitar el seguimiento, por parte de la Administración, de las actuaciones judiciales cuando de la conclusión de estas dependa la resolución del expediente disciplinario. Los responsables policiales están obligados a velar por el buen funcionamiento del servicio y, en ese sentido, la diligencia exigible pasa por explorar



formula erabil daitekeen prozesu penalean hartzen doazen erabaki judizialak unean-unean ezagutu ahal izateko. Eta hori guztia, kontuan hartuta erabaki horietako batzuek zuzeneko eragina izan dezaketela eskumenen erabileran eta Administrazioak erantzukizunak hartzeko orduan. Hori gerta liteke, adibidez, ente publikoak erantzukizun zibil subsidiarioa duenean, doloz edo erruz egindako delituen erantzule penalek eragiten dituzten kalteengatik, baldin eta erantzule horiek beren kargu edo funtzietaen diharduten funtzionarioak eta enplegatuak badira.

Azkenik, Batzorde honek jasota utzi nahi du aurreko gomendioak osatu edo zabaldu ahal izango direla, txosten honen xede den jarduketan esku hartu zuten Vitoria-Gasteizko udaltzainen jokabidea dela eta, hasitako prozesu penala amaitzen duen ebaZen judicial irmoa kontuan hartuta, hau da, ebaZen horrek ezartzen duen egia juridikoaren argitan.

las fórmulas legales que permitan el conocimiento puntual de las decisiones judiciales que se vayan adoptando en el proceso penal. Y ello, sobre todo, teniendo en cuenta que algunas de esas decisiones podrían afectar directamente al ejercicio de las competencias y a la asunción de responsabilidades por parte de la Administración. Podría suceder así, por ejemplo, en los supuestos de responsabilidad civil subsidiaria del ente público derivada de los daños causados por los funcionarios y empleados penalmente responsables de la comisión de delitos dolosos o culposos en el ejercicio de sus cargos o funciones (art. 121 del Código Penal).

Por último, esta Comisión hace constar que las anteriores recomendaciones podrán verse complementadas o ampliadas, a la vista de la verdad jurídica que llegue a establecerse en la resolución judicial firme con la que concluya el proceso penal incoado en relación con la conducta desarrollada por los agentes de la Policía local de Vitoria-Gasteiz que intervieron en la actuación objeto del presente informe.